

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA:70. alea

DATA: 2026/04/24

## GUREAN

### MURAL BERRIA!!

Donostia Kultura eta Gipuzkoako Foru Aldunditik proposamen eder bat iritsi zen ikastolara: mural berri bat margotzea. Betidanik, artearen eta sorkuntzaren alde egon garenez, erantzun azkarra jaso zuten: baietz! Aste honetan ekin diogu margotzeari. Bi muralista profesional etorri dira proiektua zuzentzera eta gure ikasleei laguntza eskaintzera: Jokin Oregi "Mr. Sortwo" eta Mikel Remak. Guztion artean, espazio berri eta zoragarria sortzea da helburua. DBHko ikasleak jo eta su ibiliko dira lanean bi aste hauetan.



## GURE INGURUAN

### SAN MARKO EGUNA

**NOIZ: APIRILAK 26 - IGANDEA**  
**NON: SAN MARKOS GOTORLEKUA**

#### Egitaraua

- 10:00: Erromeria martxa San Markora Foru Plazatik abiatuta. Herriko trikitilari taldearen eskutik.
- 11:15: San Marko gotorlekura azken igoera, Trikitilari taldea, Beti prest eta Doike taldearen eskutik.
- 11:30: Herri kirolak.
- 12:30: Doike taldearen musika emanaldia eta Beti Prest taldearen plaza dantzak.
- 13:30: Bertso saioa Xenpelar Bertso Eskolaren eskutik.
- 14:30: Haur jolasak
- 16:30: Txokolatada. Antolatzailea: Zamalbide auzo elkarte



## BAZENEKITEN?



### GURE IKASLEEK HARTU ZUTELA PARTE REALEKO HARRERAN?

LHko 4., 5. eta 6. mailako zenbait ikaslek Alderdi Ederren danborra jo zuten jokalarien aurrean astelehenean, Realak Errege Kopa irabazi ondoren. Aupa Real!

**ZUEN PROPOSAMENAK  
HONA BIDALI:**  
[melvira@herriametsa.eus](mailto:melvira@herriametsa.eus)